



# EUSKARA ZERBITZUAREN

Aranguren Ibarreko

3 Zk. 2009ko Martxoak-Ekaina

## Informazio Buletina

### KORRIKA ARANGURENGO IBARREAN

Datorren martxoaren 28an Korrika Mutiloagoiti eta Mutiloabeitik pasako da. Korrika Aek-k antolatzen duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Aek-k urteak daramazki Arangurengo helduak euskalduntzeko Ibarrean lanean. Gaur egun, eskolak Ibaialdeko lokaletan ematen dira eta bi talde ari dira bertan euskara ikasten. Aritz Aroskoa, aurten hasi diren ikasleen irakaslea da eta berak emango digu aurten-go Korrikaren berri.

**Lehenik eta behin, Arangurenen talde berri bat hasi da euskara ikasten. Nola ikusten duzu?**  
Orain dela gutxi hasi da, pasa den hilean hain zuzen. Oso talde jatorra da, eta oso gogotsu ikusten ditut. Ziur naiz hemendik ekainera asko ikasiko dutela.

**Aurten Korrika urtea da. Noiztik egiten da Korrika?**  
Orain dela urte dezente. Ni artean jaio gabea nintzen, hortaz... atera kontuak! Korrikaren lehen edizioa 1980an izan zen. Geroztik, hamabost edizio gehiago egin da eta aurtengoa 16. edizioa izanen da.



**Zein da Korrikaren helburua?**  
Bi helburu nagusi ditu. Alde batetik, euskararen aldeko sentsibilizazioa zabaltzea, eta horrekin batera, jendeak euskarari dion atxikimendua agerian uztea. Eta bestetik, dirua bildu nahi da, AEK-k bere eguneroko lana ziurtatu ahal izateko (euskaltegiak zabaldu eta mantendu, klaseak eman,...). Bata zein bestea oso garrantzitsuak dira aurrera segituko badugu.

**Zein da Korrikak aurten zabaldu nahi duen mezua?**  
Animatu nahi ditugu guztiak, norbanako, talde, enpresa zein administrazioak, konsekuenteago izateko. Euskararen alde behin baino gehiagotan agertu gara guztiok, baina uste dugu haratago joatea garrantzitsua dela; gure desio, jarrera eta hitzak praktikara eramatea garrantzitsua dela. Korrikaren bitartez harrera ona egin nahi diogu pausoak ematera jarriko den orori, "ongi etorria" eskainiz euskaltegi, eskola eta bestelakoetan euskara ikasten ari diren eta ikasi dutenei, eta bereziki, hemen Ibarrean D eredu sortzeko lekukoa hartu eta hartuko dutenei.



**Korrika martxoaren 28an Ibarretik pasako da. Zein izango da egingo duen ibilbidea? Zein ordutan?**  
Iruñerriko errondatik etorri eta Mutiloagoitin sartuko da, ondoren Mutiloabeitira joateko. Goizeko 8,30ak aldera pasako da, beraz, goiz altxatu beharko da. Badakizue, ongi gosaldtu, beroketak egin eta ongi etorri Korrikara! Bertan elkartuko gara.

## HAURRAK

### HEZKUNTZA

Matrikulazio epea: **martxoaren 9tik 16ra**. Zure seme-alaba D eredu matrikulatze-ra gonbidatzen zaitugu. D ereduak abantaila asko ditu, haien artean hauek:

- Hizkuntza murgilketak, sare publikoko D ereduak, Nafarroan 30 urteko esperientzia du eta eraginkortasun eta kalitatea bermatzen duen bakarra izaten jarrai-tzen du.
- Murgiltze ereduak ikasten duten haurrek arazoak konpontzeko eta sormenerako gaitasun handiagoa izaten dute.
- Euskarak, lan mundurako, bertako kultura ezagutzeko eta giza harremanetako atek irekiko dizkio.



### LUDOTEKA

4 eta 11 urte bitarteko haurrentzako. **Asteazkenetan** (ele bitan), **ostegunetan** (euskaraz) eta **ostiraletan** (ele bitan), 17:15etik 19:15era. Idoi plazako lokalean.

### ESKANTZA SOZIOKULTURALA

- Ipuin-kontalaria: **martxoaren 18an**, 18:00etan, Kultur Etxeko Ludoteka Aretoan.  
Virginia Albira: Zergatik ote?
- Haur eta familientzako antzerkia: **martxoak 22an**, 18:30ean, Kultur Etxeko Auditorioan, "Kanpanila eta Peter Panen itzala" TXALO PRODKZIOEN eskutik.
- Eta Kultur Agendan argitaratuko diren jarduera askoz gehiago...

## HELDU eta GAZTE EUSKALDUNAK

- **Mintzakide**: Euskaraz txukun hitz egiten duten eta mintzamina hobetu nahi duten pertsonak elkarrekin jartzen dituen programa da. Talde txikiak osatzen dira, gutxienez astean behin elkartzen dira, taldeen helburua euskaraz mintzatzea da. Programa honen baitan, zenbait jarduera osagarri egiten dira:

- **Ekainak 6 Mintza Eguna** Gasteizen: Mintzapraktika programen ikasturte bukaerako festa.  
Informazio gheiago: [www.blogak.com/mintzakide](http://www.blogak.com/mintzakide)



- **Mendi-taldea**: Mintzakide egitasmoaren bitartez sortutako talde mendizalea eta euskalduna da. Asmoa mendian zehar prestaturiko ateraldietan lagun giroan lasai ibiltzea da, Euskal Herriko bazter ederrak ezagutzeko eta, bidenabar, euskaraz hitz egitea.

- Non? Iruñeako Zezentegiko (Corralillos) behin-behineko aparkalekuan.
- Noiz atera? Goizeko 8:15ean (8:30etan abiatzeko)
- Noiz itzuli? Gehienetan arratsaldeko 16:00etan.
- Nola? Eguraldi eragozpenik izatekotan, eguneko ibilbidea alda daiteke. Bakoitza jatekoa eramaten du. Autoetan moldatzen gara jendearen arabera.
- Irteerak:

- Martxoak 8**: Bioleta (Zaraitzu)
- Martxoak 22**: Urkulu (Ibañetatik)
- Apirilak 5**: Anboto (Bizkaia)

**Apirilak 19:** Agiña (Lesaka inguruan, Bortziariak)

**Maiatzak 17:** Dulantz (Urbasa)

**Maiatzak 31:** Kobazuloen ibilbidea (Urdazubi-Zugarramurdi-Sara, Lapurdi)

**Ekainak 14:** Aitzkorri (Gipuzkoa)

**Ekainak 28:** Hiru Erregeen Mahaia

■ **Bertso Bazkaria:** Xabi Paya eta Onintza Enbeitarekin.

**Martxoak 14,** 14:30ean, San Pedro elizako jantokian.



-Helduen Menua: 21 €

Zikiro Jana (salda, zikiroa eta piperrada, gazta, kafea, ogia, ardoa eta kopa)

-Haurren Menua: 6 €

Arroza, frijituak, natilak, ogia eta freskagarriak.

-Txartelak erosteko: **martxoaren 2tik 12ra**, Euskara Zerbitzuan, Aranetxean eta Kultur Etxean, ohiko ordutegian.

## HELDU eta GAZTEAK OROKORREAN

■ **Jolas tailerrak eta Kontu Txikiak**

-10 orduko tailerra.

-**Hartzaileak:** gurasoak (2, 3, 4 eta 5 urteko haurrenak), haur hezkuntzako irakasleak eta ludotekako begiraleak. Gurasoek seme-alabekin parte hartu ahalgo dute.

-**Helburua:** haur txikiekin aritzeko (otorduetan, garbitzerakoan, loa egiterakoan, etab...) euskal tradizioko baliabideak eskaintzea.

-Eguna: **asteazkenak, apirilak 22 eta 29, eta maiatzak 6, 13 eta 20.**


-Ordua: 16:00etatik 18:00 etara.

-Lekua: Ibaialdeko lokalak.



-**Izena emateko apirilaren 1etik 8ra** Euskara Zerbitzuan: gutxienez 8 eta gehienez 20 pertsona.

-**Bertaratze ziurtagiria** banatuko zaie%80eko asistentzia dutenei.



## GUZTIAK

■ **Korrika Kulturala**

Korrika eta Korrika Kulturalari buruzko berri zehatzak nahi badituzu, <http://www.korrika.org/> webgunea bisita dezakezu. Hala ere, ibarrean Korrikaren etorrerarekin batera egingo direnak, honakoak dira:

- **Korrika dokumentala: "Bidai Intimoak"**

Euskaraz, **gaztelerazko azpituluekin. Martxoak 5,** 20:00etan, Kultur Etxeko Auditorioan.

- **Karrika-Korri.**

Zirko Ttipiaren eskutik.



Haur eta familientzako pailazoen ikusizuna euskaraz.

**Martxoak 25,** 18:00etan, Kultur Etxeko Auditorioan

Ibarreko biztanleentzako *gonbidapenak* Kultur Etxean egongo dira astelehentik aurrera. Beste guztiek asteartetik aurrera jaso ahalgo dituzte.

- **Ibarreko Korrika txikia, eta ondoren, txistorrada.**

**Martxoak 22,** goizeko 11:00etan, Taxoa-



ren.

Nahi duenak bizikletaz joan ahalgo du. Horretarako, goizeko 10:30ean kiroldegiko sarreran geratu gara. Bertan, "atera zure bizikleta kalera" lehiaketako II. Ediziorako txartelak zigilatuko dira bi bizikleta tolesgarriren zozketan parte hartu ahal izateko.

-**Helburua:** Ibarretik pasako den Korrika-

ko kilometroetatik bat erosteko finantzazioa lortu eta euskara sustatzeko aitzakiarekin Ibarrean egun polit bat pasatzea.

-**Parte hartzaileak** Ibarreko taldeak izango dira (ikastetxe ezberdinetako guraso, ikasle eta irakasleak, kuadrilak, elkarteak, euskaltegiko taldeak...).

-**Parte hartzeko: martxoaren 10erako** Euskara Zerbitzura deitu behar da, kilometro bat erreserbatu (100 metrokoak izango dira) eta egingo den ekarpena zenbatekoa izango den zehaztu. Talde bakoitzak nahi eta ahal duen ekarpena egingo du, ez dago ez gutxienez eta ez gehienezko kopururik.

■ **Korrika.**

**Martxoak 28,** goizeko 8:30ean, Mutiloa-



goiti eta Mutiloabeitik pasako da.

9:30ean, **hamaiketako** Kiroldegiko tabernan: 10 €-tan, arraultzak, urdaiazpikoa, tomate patatak eta ardoa (horietako 2 € Ibarreko kilometroetako bat finantzatzeko erabiliko dira). Deitu Euskara Zerbitzura **martxoaren 27a baino lehen eta erreserbatu** zure hamaiketako.

■ **Euskararen Astea (ekainak 3tik 7ra, Mutiloabeitin)**

## PUBLIKAZIOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Arangurengo Udalak argitaratutako "Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren" argitalpenaren ale bat nahi baduzu, jar zaituz Euskara Zerbitzuarekin harremanetan. Erroldatuentzako doako aleak daude.



**Udalaren helburua Ibarreko taldeekin elkarlanean aritzea da. Horregatik, Udaletik gizarte eragile eta norbanako guztiei hizkuntzaren normalizazio prozesu honetan parte hartu eta inplikatzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu.**

**EUSKARA ZERBITZUA**  
**Eskeletako k/9, Mutiloabeiti**  
**Astelehentik ostiralera**  
**9:00etatik 14:00etara**  
**948 15 13 82**  
**euskera@aranguren.es**  
**www.aranguren.es**